

**ALKATETZA  
DEKRETUA**

2024 000004562

Espediente-zenbakia: 2024/IDA\_DEK0669

**SANTA EUFEMIA AZOKAKO POSTUEN 2024 URTEKO OINARRIAK ETA  
ERANSKINAK ONARTZEA ETA DEIALDIA ZABALTZEA, ONDARE  
PUBLIKOAREN ERABILERA BAIMENTZEKO.****Xedea**

Santa Eufemia azokako postuen 2024 urteko oinarriak eta eranskinak onartzea eta deialdia zabaltzea, ondare publikoaren erabilera baimentzeko.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: Santa Eufemia azokako postu kopurua mugatuta da eta eskatzaile kopurua handiagoa da. Horregatik, beharrezkoa da aukeraketaren irizpideak finkatzea, oinarrien bidez.

Bigarrena: Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak oinarrien proposamena egin du, Eusko Jaurlaritzak 2017 urtean argitaratutako "Euskadin Tokiko azokak eta feriak antolatzeke Gida"ren gomendioak jarraituz.

Hirugarrena: Udalak interesa dauka irailaren 16an baserriarren eguna ospatzeko, Bermeon 9 auzo eta baserri asko daudelako. Bermeo, herri arrantzalea izan arren, baita baserriarrarena da.

Laugarrena: 2024ko uztailaren 17an, 2024/71 zenbakidun txosten juridikoa egin du.

**Argudioak**

Lehenengoa: 2024ko irailaren 16an, Santa Eufemia azoka ospatuko da eta Lameran, nekazal azoka kokatuko da, BBK-ko antolakuntzarekin eta enpresa batek bitartekari lanak eginez.

Bigarrena: Jabari publikoaren gaineko baimenei, Administrazio Publikoen Ondarea arautzen duen 33/2003 Legea –oinarrizko lege moduan barne hartzen dituen artikuluetan soilik- eta Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 1372/1986 EDa aplikatzen zaie.



Hirugarrena: Aitatutako legediaren arabera, baimenak mugatuak direnean, baimenen esleipena kontratazio legediarekin bat egin behar da, hau da, Sektore Publikoen Kontratuak arautzen dituen 9/2017 Legearen arabera.

Laugarrena: Baimenaren oinarriak onartu eta esleitzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua arabera, alkateari dagokio.

## Erabakia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, honako hau erabaki dut:

LEHENENGOA: ondare publikoaren erabilera baimentzeko, 2024 urteko Santa Eufemia azokako postuen oinarriak eta eranskinak onartzea eta deialdia zabaltzea.

BIGARRENA: Erabaki hau eta dagozkion oinarrien iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bermeoko Udaleko web orrian oinarriak argitaratzea.

HIRUGARRENA: erabaki hau BBK "sector primario"ri eta Baitxe Innoba SLri jakinaraztea.

LAUGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkurean erabaki honen berri ematea.

**Oharra:** sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E800106DAC00K8D116Z8Y2H6

### Sinadurea eta data

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 24/07/2024

EXPEDIENTE ::  
2024IDA\_DEK0669

Data: 27/06/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

